



ainguruak

AGIAN

Etorkizuna behin eta berriz agortua
iraganean zulatutako zakuan

Kristal apurtuak jomugaren bidean
nork esan zuen erraza izango zela

Agian piztuko da ametsaren garra
agian saiatuz erre egingo gara

Agian bideratuko dugu zaldia
agian galduko gara bere mendian

Iparrik gabeko gau lainotuetan
gida gaitzala gu elkartzen gaituenak

Zertarako izan nahi lurraren uzaba
landatuko dena gure hazia ez bada

Agian porturatuko da gure ontzia
agian bidaian izango da irentsia

Agian izotza izango da udaberrian
agian loratuko dira gereziak

Musika eta hitzak: Inun

QUIZÁ

El futuro agotado una y otra vez
en el agujereado saco del pasado

Cristales rotos camino de la meta
quién dijo que iba a ser fácil

Quizá se encienda la llama del deseo
quizá nos quememos al intentarlo

Quizá controlemos nuestro caballo
quizá nos perdamos en su montaña

Que en las noches nubladas
nos guíe aquello que nos une

Para qué ser el dueño de las tierras
si lo que sembremos no va a ser nuestra
semilla

Quizá nuestro barco llegue a puerto
quizá se hunda durante el viaje

Quizá haya helada en primavera
quizá florecerán las cerezas

Música y letra: Inun